



PANDEMIAN ETSIPENA, TRISTURA ETA BAKARDADEA ZABALTZEN ARI DIRA AHALMEN KRITIKOA APALTZEKO



Elkartzea eta erantzun kolektiboa ematea inoiz baino beharrezkoagoa denean, isolatzea eta bakartzea proposatzen digute. Hau da pandemia honek utziko digun ondorio larriena kolektibitatearen defendatzaile sutsua den Lakabeko komunitatearen sortzailearen aburuz.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

KEM-MOC Kontzientzia Eragozleen Taldea, Itoizko urtegia, feminismoa, zentral nuklearrak, ekologismoa... Urte luzeak daramatzazu borrokan. Zer ikasi duzu?

Dena zirrargarria izan da eta esperientzia guztietatik ikasi dut. Sistemak dio geure burua defendatu behar dugula, edo norbait izateko borrokatu behar dugula, baina ideia ergelak dira horiek. Bizitza oso eskuzabala da. Nik ikasi ditudan gauza nagusiak feminismotik eta naturatik datoz. Feminismotik ikasi dut nahi dudana naizela eta ez besteek esaten dutena; eta naturatik, gauza bakoi-tzak bere unea duela eta ziklo bateko parte garela. Garrantzitsuena da ziklo horrekin bat egitea. Ez behartu lurra zuk nahi duzuna lortzeko, nahi duzun tokian eta nahi duzun unean. Bi ardatz horien arabera bizi nahi dut nik. Hori da nire helburua.

Zergatik erabaki duzu sistemaren mugetan bizitzea?

Ez gara ohartzen fikziozko bizitza bat bizi dugula. Asmakeria bat. Sistemak esaten dizu gauza asko faltan dituzula, beharra sorrarazten dizute eta gero haiek beraiek ematen dizkizute gauza horiek. Gorpil zoroa da. Ohartzen zarenean hasten zara mugitzen eta bestelako bideak bilatzen. Ezin da sistematik erabat kanpo bizi honek dena okupatzen duelako, baina bai haren mugetan eta hor askatasun gehixeago eta kontrol gutxiago dago. Nire erabakia izan da bazter horretan geratzea, sentitu behar dudalako ni naizela nire erabakiak hartzen dituen.

Emakume izateak zabaldu dit gogoeta hauetarako bidea, oztopo asko aurkitu dudalako betidanik. Teorian demokratikoa eta berdinzalea den mundu hone-tan gezur piloa kontatzen digute. Ez da erraza, hala ere, bizimodu horretatik al-

dentzea, toki guztietan muga asko dagoelako. Barnekoak eta kanpokoak. Ni mugak onartzeko prest nago, baina nik ikusi ditudalako, ez inposatu dizkidatela-ko. Azken finean, materia gara eta muga asko ditugu.

Eta nora iritsi nahi duzu?

Badu zerikusirik sentsazio pertsonalarekin. Sentitu nahi dut askea naizela, baina nitaz ere, nik neuk neure buruari batzuetan oztopoak jartzen dizkiodalako gauzak egiterakoan. Bide berriak zabaldu nahi ditut, nahiz eta azken helburua neronek ezin burutu. Beste pertsona batzuk sartzen badira bide horretan eta indar gehiago badute, bizi denbora gehiago badute, haiek jarrai dezatela.

Askok dira bizitzak ekartzen dizkizun batailak eta aukeratu behar duzu. Erronka berriei aurre eginez, muturrera iritsi eta harago joanez, hazi egiten zara.



Mabel Cañada Zorrilla

BILBO, 1952



Antimilitarista, feminista, bakezalea, ekologista, aktibista eta bidegilea. Santutxun sortua, 22 urterekin bizimodu komunitarioaren alde egin zuen, lehenengo Bilbon eta gero Nafarroan. KEM-MOC Kontzientzia Eragozleen Taldean hama-bost urte aritu zen. Aurten 40 urte bete dituen Lakabeko komunitatearen sortzaileetakoa da. Gaur egun Artzibarko zinegotzia eta Irati Hondakin Solidoen Mankomunitateko presidentea da. 2004. urteaz geroztik aldaketa-prozesuak bideratzen aritzen da hainbat kolektibo eta erakunderekin lanean. Gizarte-taldeentzako egoera-diagnostikoak egin eta beren prozesuetan lagundu egiten die. Ikastaroak eta tailerrak ere ematen ditu. Lau pertsonen ama da eta beste zenbaiten amona.

Hemen adibidez, fisikoki bizitza oso gogorra da. Horregatik nire gorputzarekin negoziatzen dut. Lana ematen diot, baina sariak ere bai: goazen hau ongi egitera eta gero mendi buelta bat edo eguzkitan etzan arratsalde oso bat... Jakin behar dut neure burua ongi zaintzen dudala, bestela beste pertsonak zaintzeko gai ez nintzateke sentituko.

Zein da kolektibitatearen garrantzia gizartearen eraldaketan?

Ekintzetatik abiatuta mundu justuago bat sortzeko aukera da desobedientzia zibila, baina banaka ez dugu ezer balio. Ekintza batekin mundua aldarazi duten lagunek hori lortu dute mugimendu kolektibo baten parte zirelako.

Lehen kontzientzia eragozlea, bozka eman zuen lehen emakumea, Luther King, Gandhi... denak. Atzean ez badago giza talde bat sostengua ematen dio, edozein protestak edo mugimenduk porrot egiten du. Akabatzen dute, isilarazten dute Alemanian judutarrekin egin zuten bezala. Orain ez gaituzte hilko, hori espero dugu behintzat, baina bakartuko gaituzte. Ez digute elkartzen utziko hitz egiteko. Esaten digute internetekin inoiz baino harreman gehiago egin dezakegula jen-

dearekin, baina horiek ez dira sistema askeak. Ez dakigu hortik datorrena egiazkoa den edo ez. Ez dakigu nori sinetsi eta nori ez. Honen ondorioz mesfidantza gero eta handiagoa izanen da jendartearen. Honengatik guztiagatik harremanetarako guneak dira orain lehenbizi debekatu dituztenak. Honek eragin zuzena izan du kontzientzia sendoagoa zuten gizarte eragileetan. Gakoa komunitatean eta komunikazioan dago.

Bakartze hau pandemia honek utziko digun ondorioetako bat da?

Garrantzitsuen, zalan-tzarik gabe. Muturreko egoera honetan isolatzeko egiten diguten proposamen hau gizakia ari da barnetik hausten. Bakardade handia dago.

Arazoa ez da koronabirusa bera, baizik eta nola ari diren aprobetxatzen egoera eta noraino eramaten ari diren.

Mugimendu sozialei dagokienez birrintzailea izanen da. Lorpen txikiak erdiesten ari ginenean hau iritsi zaigu. Klima aldaketaren aurkako borrokan, esate baterako, izugarri handitu da zaborraren kopurua eta oso gaizki ari dira kudeatzen. Astakeria bat da gertatzen ari dena. Orain inoiz baino zalantza-egoera da planetaren etorkizuna.

“Ekintzetatik abiatuta mundu justuago bat sortzeko aukera da desobedientzia zibila, baina banaka ez dugu ezer balio”





Informazioarekin bonbardatzen gaituzte etengabe. Beldurra sartzen digute barruraino: heriotzari beldurra, kutsatzeko eta kutsatuak izateko beldurra. Oso eraginkorra izan da eta sistemaren mugetatik espero baino askoz erantzun gutxiago iritsi da.

Inkisizioa, esklabotza... pasa ditugu, baina beti egon da masa kritikoa bat eta orain ez dago. Pertsona bakar batentzat gehiegi da sistema osoari aurre egitea eta horregatik gaude geldirik. Nire us-tez hori da larriena.

Baina elkartasunaz eta elkar zaintzaz asko hitz egiten ari gara egunotan...

Bai, eta ekimen politikak daude auzo eta herri askotan, baina beti pertsonen arteko harremanetatik sortuak, ez egitura sozial edo politikoek sustatuak. Eta harreman pertsonal hauetatik ez da boterea sortzen. Jarraitzen dugu betiko eredu kapitalista, patriarkala, neoliberalak, matxista... jasaten. Pertsonen baliatzen da sistema zerbitzu horiek emateko, baina gero sare horiek-eta ez ditu sostengatzen, ezta laguntzen ere. Are gehiago, ahal duen bezain laster, baliogabetu egiten ditu.

Argi eduki behar dugu ez dela pertsonen egitekoa jendartearen sortzea, kolektibitateena baizik. Ez gaude bakarrik hori dena egiten. Ez dugu zertan heroiak izan behar. Hori eredu patriarkala da. Horregatik behar dut nik sistemaren mugan bizi, haren eragina ahalik eta gutxien jasotzeko eta isiltasun uneak izateko.

Birusa mendearen hartu ondoren, ez gara lehenagoko borroketara itzuliko?

Hau ez da parentesi moduko bat. Gizateria ez da inoiz lehengoa izanen, eta pertsonak eta ekonomia ez dira lehen bezala portatuko.

Aldaketa bortitzegia da eta etsipena, tristura eta bakardadea zabaltzen ari dira ahalmen kritikoa apaltzeko. Eta horrela mundu berri bat lortzea oso zaila da. Sistema hau oso ongi dago diseinatu. Hamabost egunean behin erabakiak hartzen ari direla dirudien arren, ez dira inprobisatzen ari. Ez digute esaten nolakoa izanen den normaltasun berria, baina ez dira osasun-ekipoak erosten ari, teknologikoak baizik. Ordenagailuak eta zaintza-kamerak daude, ez desfibriladoreak eta osasun-zentroak.

Ez dugu ezer ikasiko?

Ez dugu ikaskuntza horiek guztiak batera jartzeko aukerarik, eta isolatzeko denbora luzea izanen denez, galdu egingen da eta amets bat bezala geratuko da.

Gizakiok desagertzera kondenatuta gaude?

Gerta daiteke pertsonak izatea planetan soberan gaudenak. Klima aldaketak iragartzen digun une kritikoa hori iritsitakoan agian aberatsenak Martera edo Ilargira joanen dira, ertainek beren Noeren arka egingen dute, hala edo nola, eta gainerakoak noraezean abandonatutako pertsonak izanen gara. Jendarte bezala ez gara honi alternatiba eraikitzen ari.



NATURATIK IKASI

“Nik ez dut jendea epaitzen edo kritikatzeko. Elkar zaintza eta elkar-lana nahi dut sustatu soilik. Landareek egiten duten bezala. Ohartzen zara izaki bakoitzak baduela bere estrategia planetan mantentzeko eta beti modu kolektiboan. Uda lehorretan, adibidez, zerba hostoak jaisten dira eta lur osoa estaltzen dute hezetasuna gordez. Tomateak ere entitate kolektiboak dira bete-betean. Gorri dauden ale guztiak bat-batean kentzen badituzu, ero moduan hasiko dira lanean beste tomate gorri batzuk berehala izateko, haziak izango dituztela ziurtatzeko. Hamar edo hamabi kentzen dituzu eta hurrengo egunean beste horrenbeste izanen dituzu. Nik hori dena ikusten dut eta pentsatzen dut gizakiok ere berdin egin beharko genukeela: une gogorretan elkartu beharko genuke eta ez banandu, orain proposatzen diguten bezala”.

EUSKARA IKASTEN

“Denbora luzea daramat euskara ikasten eta oraindik hitz egiteko moldatu ez arren, oso nire den eta Ama Lurrarekin lotzen nauen zerbait bezala sentitzen dut”.

Gobernu eta alderdi politiko bat ere ez da arduratu herritarrak biltzeaz eta krisi-garaietarako lankidetzaren egitura bat sortzeaz. Inork ez du esan: nire herritarrak ahaldunduko ditut ezbeharren aurrean nola jokatu jakin dezaten. Ongi eraikitako jendarteak da bere ingurunean bizirauteko dakiena. Sinestarazten dizute ez dela deus gertatuko eta gertatzen denean hiltzen zara. Ni hiritik herrira bizitzera etorri nintzenean moldakaitz hutsa nintzen. Ikasketak ederra baina gogorra izan zen. Nik uste dut gizateria gisa, bizirik irauteko beharrezkoa den informazio guztia elkarri transmititzeko gaitasun handiagoa izan beharko genukeela pertsona guztiok. Bizi garen gizarteak biziraupena ezabatu du.

Nolakoa izan da Lakaberen garapena 40 urte hauetan?

Hasi ginen ideia nahiko inozoarekin. Iku-si nahi genuen zer gertatzen zaien pertsonen komunitatean bizitzeko hasten direnean eta ea posiblea ote den poliziarik, nagusirik eta armadarik gabeko jendarte bat antolatzea. Kontzientzia-eragozleen mugimendutik eta antimilitarismotik gentozen baina ez genekien hori egingarria izanen ote zen. Eta oraindik ari gara prozesu horretan. Gure segurtasun espazio propioak ongi lotuta dituen gizarte batetik gatzoz eta horregatik beharrezkoa baino gehiago guretzako hartzeko joera dugu: baliabideak, arreta, zaintza, denbora... eta kosta egiten zaigu ulertzea zure sostengua taldea izanen dela eta ez pilatu dituzun beste horiek guztiak. Talka eginez ikasten ari gara etengabe. Garrantzitsua da, bestalde, ikasi dugun hori guztia hizkuntzaren bidez besteei transmititzea. Informazio hori guztia ongi azaltzea eta ezagutzera ematea interesatzen zaigu kolektibitateek egin dezaten aurrera, orain arte egin dutena baino azkarrago.

Urtean bi aldiz kanpoko jendea etortzen da egonaldiak egitera.

Nolako esperientziak izaten dira?

Oso interesgarriak. Udaberrian eta udazkenean ate irekiko jardunaldiak egiten ditugu, bi edo hiru astez. Pertsona batzuk hiru egunez shock egoeran egoten dira hona iritsitakoan. Naturatik oso aldentuta datoz eta aldaketa ikaragarria da. Asko hitz egiten dugu, eta naturarekin bizitzeko aukerak eta esperientzia honek, oro har, batzuei bizitza aldatzen die. Nahi ez dutenaren pertzepzio argiarekin eta nahi dutenaren arrasto batekin joaten dira. Hemen bizi izan dutenetik zerbait nahi dute: zainketak, harremanak, naturarekin bat datozen denborak. Normalean hamabost edo hogeit hamar pertsona etortzen dira aldi bakoitzean, helduak eta haurrak. Hurrengo apirileko egonaldia ia prest dugu jada.

Bideratze prozesuak gidatzen dituzu kolektiboetan. Zer da zehazki egiten duzuna?

Lan asko egiten ari gara. Kolektiboei laguntzen diegu hausnarketa egiten, beren ametsa zehazten eta hori sostengatzeko behar den egitura eraikitzen. Kalitatezko irtenbideak hartzen ikasi behar dugu, pertsonak nahi dutena aurrera eramateko gai senti daitezen, aginte-egitura be-

rriak sortu behar izan gabe. Hitz egiteko, kudeatzeko, erabakiak hartzeko eremu orekatuak sortzea da helburua. Eta hori guztia era baketsuan egin behar dugu. Kultura eta erlijio askok aipatzen digutena Lurrean dago, ez dago besterik. Gure esku dago paradisu edo kartzela gisa bizitzea gure Lurreko egonaldia.

Argi eduki behar dugu proiektu bat ezin dela zerbaiten kontra eraiki. Talde bat sortzen baduzu zerbaiten aurka, zure identitatea zugandik kanpo kokatzen duzu eta irauten duzu beste horrek irauten duen bitartean. Akabatu nahi duzun hori beharrezkoa duzu bizirik jarraitzeko eta horregatik, modu subkontzientean askotan, kontrako hori elikatzera behartuta sentitzen gara. Paradigma hori birrintzailea da eta hori da talde batzuek ulertzen ez dutena.

Emankorragoa da zuk amesten duzun bezala bizitzeko saiatzea eta aurre egitea bizitzak ekartzen dizunari. 20 urtez borrokatu dugu guk Itoizko urtegiaren aurka, baina gure bizitza ez da horrekin amaitu, beste norabide batzuk hartu ditu. Bataila bat izan da, baina bizia ez dugu galdu horretan gure helburua delako bizitzeko modu alternatiboak proposatzea. ●

**Durangoko Azokan
HARPIDETZA**
eskaintza berezia

**Izaroren disko
sinatu baten
zozketan
parte hartuko
duzu!**

**EUSKARA
IKASLEA
ZARA?
IRAKASLEA?**

Abendukoa, kalean!



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO
OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA
IRAKASLEENTZAT**
- **10 ALE URTEAN**

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29€** ● **aizueus**